| GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2015EKO EKAINAREN 30EAN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 30 DE JUNIO DE 2015. |
|---|---|
| BERTARATUAK | ASISTENTES |
| LEHENDAKARIA | PRESIDENTE |

Keltse Eiguren Alberdi And.

| BATZARKIDEAK | V O C A L E S |
|---|---|

Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamabosteko ekainaren hogeita hamarrean, Keltse Eiguren Alberdi, Lehen Alkateordea andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a treinta de junio de dos mil quince, y bajo la presidencia de la Primera Teniente de Alcalde, doña. Keltse Eiguren Alberdi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Lehendakariak, legeak eskatzen duen kide- kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

La presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado

siguiente:

**239.- 2015EKO EKAINAREN 23AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA**.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2015eko ekainaren 23ko bilerakoa, hain zuzen.

**239.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE JUNIO DE 2015.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 23 de junio de 2015.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**240.- HIRI-UDALEKUETAKO ANIMAZIO-ZERBITZUA 2015 URTERAKO ESLEITZEA**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- 2015/05/05ean Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako 170. Erabakiaren bidez, GETXOKO 2015. URTEKO HIRI UDALEKUETARAKO ANIMAZIO ZERBITZUA adjudikatzeko izapidea hasi zen, zenbatekoa 56.000 euro da (BERROGEITA HAMASEI MILA euro), BEZaren % 10 barne, eta prozedura negoziatuan kontratatzea erabaki zen, publizitaterik gabe.

BIGARRENA.- 2015/05/07an, sei enpresari aipatutako espedientea irekitzen zela jakinarazi zitzaien, eta beren eskaintzak egiteko gonbidapena egin zitzaien; horretarako, 10 (hamar) laneguneko epea eman zitzaien,

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**240.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO 2015.**

A propuesta de la Alcaldía-Presidencia, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por Acuerdo nº170 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 05/05/2015 se inició la tramitación para la adjudicación del SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO 2015 DE GETXO, por importe de 56.000€ (CINCUENTA Y SÉIS MIL euros), IVA del 10% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Negociado, sin publicidad.

SEGUNDO.- Con fecha 07/05/2015 se comunicó a séis empresas la incoación del expediente de referencia, invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 10 (diez) días hábiles a contar desde el

gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

siguiente al recibo de la invitación.

Epe hori amaitu zenean, enpresa batek eskaintza aurkeztu zuen.

Finalizado dicho plazo, una empresa presentó proposición.

HIRUGARRENA.- 2015/05/21ean, AISILAN XXI SL enpresak (IFK: B-95193827) proposamen bat aurkeztu zuen, baina 2015/06/03ko Alkatetzaren 2347/2015 Dekretuaren bidez ez zen izapidetzeko onartu, garaiz kanpo aurkeztu baitzen.

TERCERO.- Con fecha 21/05/2015, la empresa AISILAN XXI, S.L., con CIF B-95193827, presentó proposición, que fue inadmitida a trámite por extemporánea mediante Decreto de la Alcaldía-Presidencia número 2347/2015, de fecha 03/06/2015.

LAUGARRENA.- 2015/05/21ean DOKUMENTAZIO OROKORRA zuen LEHEN gutun-azala ireki zen jendaurrean.

CUARTO.- El día 21/05/2015 se realizó, en acto público, la apertura del sobre PRIMERO, conteniendo la DOCUMENTACIÓN GENERAL.

Aurkeztutako proposamenak zenbatu eta ireki ziren. Jarrian zerrendatutako enpresak aurkeztu ziren lizitaziora:

Se procedió al recuento de las proposiciones presentadas y a la apertura de las mismas. Se presentaron a la licitación la empresa que se relaciona a continuación:

- KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL SL

- KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L.

BOSGARRENA.- Lehenengo gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa ikusita, egindako eskaintza onartu zen eta bigarren gutun-azala ireki zen, NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIEI buruzkoa.

QUINTO.- A la vista de la documentación presentada en el sobre primero se admitió la oferta presentada y se procedió a la apertura del sobre segundo correspondiente a los ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN.

Hauxe izan zen emaitza:

El resultado de dicha apertura es el siguiente:

| ENPRESA/EMPRESA | NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIAK PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZ-a KANPO)<br>ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN PROPOSICION ECONÓMICA (IVA NO INCLUIDO) |
|---|---|
| **KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL** | **49.000,00 €** |

Klausula Ekonomiko-administratiboen Pleguaren 22. atalean ezarritakoa negoziatzeko izapideari jarraipena emanez, 2015/05/22an aurreko lizitatzaileei kontraeskaintzak aurkezteko epea irekitzen zela jakinarazi zitzaien.

Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 22/05/2015 se comunicó a los licitadores antedichos la apertura del plazo de presentación de contraofertas.

Kontraeskaintzak aurkezteko epea amaitu zenean, enpresa lizitatzaileak ez zuen kontraeskaintzarik aurkeztu.

Finalizado el plazo de presentación de contraofertas, no fue presentada contraoferta por parte de la empresa licitadora.

SEIGARRENA.- 2015/05/25ean, NEGOZIAZIEZINAK ETA AUTOMATIKOKI EBALUAEZINAK DIREN IRIZPIDEei buruzko HIRUGARREN gutun-azala ireki zen jendaurrean, eta honako emaitza atera zen:

SEXTO.- Con fecha 25/05/2015, se realizó en acto público la apertura del sobre TERCERO relativo a los CRITERIOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y NO EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE, con el siguiente resultado:

| ENPRESA/EMPRESA | AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACION PRESENTADA |
|---|---|
| **KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL SL** | **ESKAINTZA TEKNIKOA ("*Lan programa*" ETA "*Lizitatzaileentzat proposatzea egokia den beste zenbait hobekuntza*")** OFERTA TÉCNICA (*"Programa de trabajo"* y *"Otras mejoras que los licitadores estimen conveniente proponer")* |

Jarraian, eta lizitazioa agintzen duten pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen, eta aurkeztutako eskaintzak Getxoko Gazteria Zerbitzura igorri ziren, zegokien balioespena egin zezaten.

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procedió a foliar y numerar la documentación presentada y se remitieron las ofertas presentadas al Servicio de Juventud de Getxo, para que fuese realizada la valoración correspondiente.

ZAZPIGARRENA.- 2015/05/27an, Gizarte Esku hartzeko teknikaria den Unai Amezaga jaunak aipatutako prozedurara aurkeztutako proposamenen abantaila handi edo txikiari buruzko txosten teknikoa egin zuen, lizitazioa arautzen duten agirietan jasotako balioespen-irizpideak

SÉPTIMO.- Con fecha 27/05/2015, D. Unai Amezaga, Técnico de Intervención Social, emitió Informe Técnico, sobre la mayor o menor ventaja de la propuesta presentada al procedimiento de referencia, de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en los Pliegos que rigen la licitación, sin tener en

betez, eta balioespen horretan eskaintza ekonomikoa kontuan hartu gabe; handik honako emaitza hau atera zen:

cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br>EMPRESA | **LAN PROGRAMA**<br>PROGRAMA DE TRABAJO | | **GUZTIRA**<br>TOTAL |
|---|---|---|---|
| **KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL** | **ZEHAZTASUNA**<br>DETALLE | **PROTOKOLOAK**<br>PROTOCOLOS | |
| | 34 | 10 | 44 |

ZORTZIGARRENA.- Aurreikusitako epea amaitzean, ez ziren KONTRAESKAINTZARIK aurkeztu; hortaz, hauexek dira eskaintza ekonomikoak:

OCTAVO.- Finalizado el plazo previsto, no han sido presentadas CONTRAOFERTAS por lo que las ofertas económicas quedan como sigue:

| **ENPRESA/**EMPRESA | **NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIAK PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZ-a KANPO)**<br>ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN PROPOSICION ECONÓMICA (IVA NO INCLUIDO) |
|---|---|
| **KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL** | 49.000,00 € |

BEDERATZIGARRENA.- Aurrekoa ikusita, lortutako azken puntuazioak honako hauek dira:

NOVENO.- A la vista de lo anterior, las puntuaciones finales que se obtienen son las siguientes:

| **ENPRESA**<br>EMPRESA | **NEGOZIATUKO EZ DIREN IRIZPIDEAK (Automatikoki baloratu ezin diren irizpideak)**<br>ASPECTOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN (Criterios no evaluables automáticamente) | **NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIAK (Proposamen ekonomikoa)**<br>ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN (Proposición económica) | **GUZTIRA**<br>TOTAL |
|---|---|---|---|
| **KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL** | 44 | 51 | **95** |

HAMARGARRENA.- Aurreko guztia ikusita, 2015/05/29an eta 2015/06/09an enpresari honako errekerimendu hau egin zitzaion, SPKLTBaren 146.4. eta 151. artikuluetan

DÉCIMO.- Visto cuanto antecede, en fechas 29/05/2015 y 09/06/2015 se requiere a la empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, a saber:

xedatutakoaren ondorioetarako:

a) Bere gaitasun juridikoaren nahiz jarduteko gaitasunaren frogagiria, baita kontratatzeko duen gaikuntzaren ziurtagiria ere, hau da, Klausula Ekonomiko-administratiboen Pleguaren 21.1. atalean zerrendatutako agiriak.

b) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta edukitzea.

c) Behin betiko bermea eratuta izatea, 2.450 eurokoa.

Espedientean jasota dagoenez, enpresak aurrez aipatutako eskaera osatzean aurkeztu zuen dokumentazio hori.

a) Acreditación documental de su capacidad jurídica y de obrar y su habilitación para contratar, es decir, los documentos relacionados en el apartado 21.1 del Pliego de Cláusulas económico-administrativas.

b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

c) Haber constituido garantía definitiva por importe de 2.450 euros.

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB), irailaren 27ko 14/2013 Legeak emandako bertsioan, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari babesteko dena.

II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak onartutakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

III. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina eta hari lotuta aplika daitezkeen gainerako legeak.

IV. Proposatutako adjudikazioa Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, kontratazio-espediente honetako

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en su versión dada por la Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización.

II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de

organo eskuduna baita.

contratación competente en el presente el expediente de contratación.

Udaleko alkate-udalburuak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzarrari eman zaio hurrengo erabaki proposamena, iritzia eman dezan:

A instancia del Alcalde-Presidente de la Corporación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

ERABAKI-PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA.- KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL SL enpresari (IFK: B-01433259) adjudikatuko zaio GETXOKO 2015. URTEKO HIRI UDALEKUETARAKO ANIMAZIO ZERBITZUA, 49.000 euroan (BERROGEITA BEDERATZI MILA euro) gehi BEZaren % 10ri dagozkion 4.900 euroak (LAU MILA BEDERATZIEHUN euro).

PRIMERO.- Adjudicar a la empresa KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L., con CIF B-01433259, el SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO 2015 DE GETXO, por importe de 49.000€ (CUARENTA Y NUEVE MIL euros), más 4.900€ (CUATRO MIL NOVECIENTOS euros), correspondientes al 10% de IVA.

Kontratua burutzeko epea adjudikatzen den datatik 2015eko uztailaren 31ra arte izango da.

El plazo de ejecución del contrato se extenderá desde la fecha de adjudicación hasta el 31 de julio de 2015.

Kontratua ezin izango da luzatu.

El contrato no será susceptible de prórroga.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunak kontratazio-zerbitzuko bulegoetara (Foruen kalea, 8) joan beharko du kontratua administrazioko agirian formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 156.1. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz; hori egiteko,hamabost laneguneko epea izango du, gehienez ere, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

SEGUNDO.- El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**241.- BISITA GIDATU ANTZEZTUAK EGITEKO ZERBITZUA ESLEITZEA, LOTEA 1.A**

**241.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE VISITAS GUIADAS Y TEATRALIZADAS, LOTE 1.**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2015-05-19an hartu zuen 192. erabakiaren bidez GIDATUTAKO ETA ANTZEZTUTAKO BISITALDIEN EGITARAU ZERBITZUA adjudikatzeko izapidea hasi zen, 20.000 eurotan (HOGEI MILA eurotan), urtean 10.000 eurotan (HAMAR MILA eurotan), BEZaren % 21a barne. Era berean, prozedura negoziatuaren bidez, publizitaterik gabe, kontratatzea erabaki zen.

Adjudikazioaren ondorioetarako, kontratua bi lotetan banatzen da, Baldintza Teknikoen Pleguan zehazten direnak. Beraz, kontratua zenbait enpresa adjudikaziodunen artean loteen arabera adjudikatzeko aukera jasotzen da.

Loteak honako hauek dira:

1. lotea: BISITA GIDATUEN ZERBITZUA.
Lote honetarako lizitazioko gehieneko aurrekontua 7.400 € (ZAZPI MILA ETA LAUREHUN euro) izango da, gehienez ere , BEZaren % 21 barne, 3.700 € (HIRU MILA ETA ZAZPIEHUN euro) urteko.

2. lotea: BISITA GIDATUAK ANTZEZTEKO ZERBITZUA.
Lote honetarako lizitazioko gehieneko aurrekontua 12.600 € (HAMABI MILA ETA SEIEHUN euro) izango da, gehienez ere , BEZaren % 21 barne, 6.300 € (SEI MILA ETA HIRUREHUN euro) urteko.

A propuesta de la Alcaldía-Presidencia, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por Acuerdo nº192 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 19/05/2015 se inició la tramitación para la adjudicación del SERVICIO DE PROGRAMA DE VISITAS GUIADAS Y TEATRALIZADAS, por importe de 20.000€ (VEINTE MIL euros), a razón de 10.000€ (DIEZ MIL euros) anuales, IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Negociado, sin publicidad.

A los efectos de la adjudicación, el contrato se divide en dos lotes, que se concretan en el Pliego de Condiciones Técnicas. Por lo tanto, se contempla la posibilidad de adjudicar el contrato por lotes a diferentes empresas adjudicatarias.

Los lotes son los siguientes:

Lote 1: SERVICIO DE VISITAS GUIADAS.
El presupuesto máximo de licitación para este lote es de 7.400€ (SIETE MIL CUATROCIENTOS euros), IVA del 21% incluido, a razón de 3.700€ (TRES MIL SETECIENTOS euros) anuales.

Lote 2: SERVICIO DE DRAMATIZACIÓN DE LAS VISITAS GUIADAS.
El presupuesto máximo de licitación para este lote es de 12.600€ (DOCE MIL SEISCIENTOS euros), IVA del 21% incluido, a razón de 6.300€ (SÉIS MIL TRESCIENTOS euros) anuales.

BIGARRENA.- 2015-05-20an lau enpresari aipatutako espedientea irekitzen zela jakinarazi zitzaien, I. lotea (GIDATUTAKO BISITALDIEN ZERBITZUA izenekoa), eta eskaintzak egiteko gonbidapena egin zitzaien; horretarako, egutegiko 5 (bost) eguneko epea eman zitzaien, gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori amaitutakoan, bi enpresek I. loterako proposamena aurkeztu zuten.

HIRUGARRENA.- 2015-06-02an dokumentazio orokorra zuen LEHEN gutun-azala, I. lotekoa, ireki zen jendaurrean. Dokumentu horiek positiboki kalifikatu ostean, lizitatzeko honako enpresa hauek onartu ziren:

- BILBAO PASO A PASO S.L.
- NIS - NORTH INCOMING SERVICE, S.L.

Zenbait akats eta omisio zeudela ikusita, 2015-06-02an BILBAO PASO A PASO S.L. enpresari jakinarazi zitzaion gehienez hiru asteguneko epea zeukala aipatutako dokumentazioa zuzentzeko edo ongitzeko.

LAUGARRENA.- 2015-06-03an BILBAO PASO A PASO S.L. enpresak dokumentazioa aurkeztu zuen, lehenengo gutunazalean (dokumentazio orokorrari buruzkoan) aurkeztutako dokumentazioa ongitzen duena.

BOSGARRENA.- Ikusirik lehen gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, negoziatu beharreko alderdiak ( alderdi ekonomikoa) jasotzen dituen BIGARREN gutun-azala ireki da 2015-06-08an, eta handik honako emaitza hau atera da:

SEGUNDO.- Con fecha 20/05/2015 se comunica a cuatro empresas la incoación del expediente de referencia, Lote I (denominado SERVICIO DE VISITAS GUIADAS) invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 5 (cinco) días hábiles a contar desde el siguiente al recibo de la invitación.

Finalizado dicho plazo dos empresas presentan proposición para el Lote I.

TERCERO.- El día 02/06/2015 se realiza, en acto público, la apertura de los sobres PRIMERO, del Lote I, conteniendo la documentación general. Calificados positivamente tales documentos, se admitió a la licitación a las siguientes empresas:

- BILBAO PASO A PASO S.L.
- NIS - NORTH INCOMING SERVICE, S.L.

A la vista de los defectos y omisiones detectados el 02/06/2015 se comunica a la empresa BILBAO PASO A PASO S.L. de que dispone de un plazo no superior a tres días hábiles para que corrija o subsane la documentación indicada.

CUARTO.- Con fecha 03/06/2015, la empresa BILBAO PASO A PASO S.L. presenta documentación que subsana la documentación presentada en el Sobre Primero, relativo a la documentación general.

QUINTO.- Vista la documentación presentada en el sobre primero se procede, con fecha 08/06/2015, a la apertura de los sobres SEGUNDO, conteniendo los aspectos sujetos a negociación, a saber, el aspecto económico, con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br>EMPRESA | PREZIOA BISITA BAKOITZEKO (BEZ GABE)<br>PRECIO POR VISITA (SIN IVA) | BEZ<br>IVA | PREZIOA BEZekin<br>PRECIO CON IVA |
|---|---|---|---|
| **NORTH INCOMING SERVICE, S.L.** | 76,50 € | 16,06 € | 92,56 € |
| **BILBAO PASO A PASO, S.L.** | 89.94 € | 18,89 € | 108,83 € |

SEIGARRENA.- Baldintza ekonomiko administratiboen pleguaren 22. atalean ezarritako negoziazioko izapideari jarraipena emanez, 2015-06-08an lehen aipatutako lizitzaileei kontra-eskaintzak aurkezteko epea irekitzen dela jakinarazi zitzaien.

Emandako epea amaitutakoan inork ez du kontra-eskaintzarik aurkeztu.

ZAZPIGARRENA.- 2015-06-10ean, "NEGOZIATU EZIN DIREN ETA AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI" buruzko HIRUGARREN gutun-azala ireki zen jendaurrean, eta honako emaitza atera zen:

SEXTO.- Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 08/06/2015 se comunica a los licitadores antedichos la apertura del plazo de presentación de contraofertas.

Finalizado el plazo otorgado, ninguna empresa presenta contraoferta.

SÉPTIMO.- Con fecha 10/06/2015 se realiza, en acto público, la apertura del sobre TERCERO, relativo a "CRITERIOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y NO EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE"

| ENPRESA<br>EMPRESA | AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA<br>DOCUMENTACIÓN PRESENTADA |
|---|---|
| **NORTH INCOMING SERVICES** | Eskaintza teknikoa<br>Oferta Técnica |
| **BILBAO PASO A PASO** | Eskaintza teknikoa<br>Oferta Técnica |

Jarraian, eta lizitazioak agindutako pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu da eta aurkeztutako eskaintzak Turismo Bulegora igorri dira, dagokion balioespena egin dezan.

ZORTZIGARRENA.- 2015-06-16an Turismo Bulegoko teknikaria den Sonia Urdiain andreak erreferentziazko

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remiten las ofertas presentadas a la Oficina de Turismo, para que sea realizada la valoración correspondiente.

OCTAVO.- Con fecha 16/06/2015, Dª Sonia Urdiain, Técnica de la Oficina de Turismo, emite Informe Técnico, sobre

prozedurara aurkeztutako proposamenen abantaila handi edo txikiagoari buruzko Txosten Teknikoa egin zuen, lizitazioa agintzen duen pleguetan jasotako balioespen irizpideak betez, baliospeen horretan eskaintza ekonomikoa kontuan hartu gabe; eta honako emaitza hau atera zen:

la mayor o menor ventaja de las propuestas presentadas al procedimiento de referencia, de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en los Pliegos que rigen la licitación, sin tener en cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

| | NIS – North Incoming Service, S.L. | Bilbao Paso a Paso, S.L. |
|---|---|---|
| 1. LOTEA<br>LOTE 1 | | |
| **Zerbitzu eredua<br>Modelo de Servicio** | **3** | **3** |
| Programaren jarduketa plana<br>Plan actuaciones del programa | 3 | 3 |
| Operatibaren xehetasuna<br>Detalle de la operativa | | |
| Ebaluazioa, txostenak eta jarraipena<br>Evaluación, informes y seguimiento | | |
| **Baliabideak eta materialak<br>Recursos y Materiales** | **0** | **0** |
| Giza baliabideak<br>Recursos Humanos | 0 | 0 |
| Baliabide materialak<br>Recursos materiales | 0 | 0 |
| **Bestelako hobekuntzak<br>Otras mejoras** | **0** | **0** |
| **GUZTIRA<br>TOTAL** | **3** | **3** |

BEDERATZIGARRENA.- Aurreko ataletan aipatutakoa aintzat hartuz, lizitatzaileek honako azken puntuazio hauek lortu dituzte:

NOVENO.- Teniendo en cuenta lo relacionado en los apartados anteriores, las puntuaciones finales que se obtienen son las siguientes:

| **ENPRESA<br>EMPRESA** | **II. LOTEA<br>LOTE II** | | **GUZTIRA<br>TOTAL** |
|---|---|---|---|
| | **Negoziatu ezin diren alderdiak (automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak)<br><br>Aspectos no sujetos a negociación (criterios no** | **Negoziatu ahal diren alderdiak (proposamen ekonomikoa)<br><br>Aspectos sujetos a negociación (proposición** | |

| | evaluables automáticamente) | económica) | |
|---|---|---|---|
| **BILBAO PASO A PASO, S.L.** | 3 | 63,793 | **66,793 puntu / puntos** |
| **NORTH INCOMING SERVICE, S.L.** | 3 | **75** | **78 puntu / puntos** |

HAMARGARRENA.- Aurreko guztia ikusita, enpresei honako errekerimendu hau egin zaie 2015-06-23an, SPKLTBaren 146.4 eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a) Bere gaitasun juridikoaren nahiz jarduteko gaitasunaren frogagiria, baita kontratatzeko duen gaikuntzaren ziurtagiria ere, hau da, Klausula Ekonomiko-administratiboen Pleguaren 21.1. atalean zerrendatutako agiriak.
b) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta edukitzea.
c) Behin betiko bermea eratuta izatea, 305,79 eurokoa.

Espedientean jasota dagoenez, enpresak aurrez aipatutako eskaera osatzean aurkeztu zuen dokumentazio hori.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK
I.- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB), irailaren 27ko 14/2013 Legeak emandako bertsioan, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari babesteko dena.
II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak onartutakoa, Sektore

DÉCIMO.- Visto cuanto antecede, en fecha 23/06/2015 se requiere a las empresas a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, a saber:

a) Acreditación documental de su capacidad jurídica y de obrar y su habilitación para contratar, es decir, los documentos relacionados en el apartado 21.1 del Pliego de Cláusulas económico-administrativas.
b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
c) Haber constituido garantía definitiva por importe de 305,79 euros.

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

FUNDAMENTOS DE DERECHO
I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en su versión dada por la Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización.
II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se

Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.
III. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina eta hari lotuta aplika daitezkeen gainontzeko legeak.
IV. Proposatutako adjudikazioa Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, kontratazio-espediente honetako organo eskuduna baita.

opongan al TRLCSP.
III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación.
IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

Kontratazio Zerbitzuaren zinegotzi arduradunak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzarrari eman zaio hurrengo erabaki proposamena, iritzia eman dezan:

A instancia del Alcalde-Presidente de la Corporación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA.- NORTH INCOMING SERVICE, S.L. enpresari, B48511034 IFK, adjudikatuko zaio GIDATUTAKO ETA ANTZEZTUTAKO BISITALDIEN EGITARAU ZERBITZUA, 1. lotea, GIDATUTAKO BISITALDIEN ZERBITZUA, gehienez 7.400 euroraino, BEZaren % 21a barne, aleko prezio hauetan:

- Bisitaldi bakoitzeko prezioa: 76,50 € (HIRUROGEITA HAMASEI euro eta BERROGEITA HAMAR zentimo) gehi 16,06 euro (HAMASEI euro eta SEI zentimo), BEZaren % 21a.

Kontratua egikaritzeko epea 2 (BI) URTEKOA izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratua bi aldiz luzatu ahalko da luzapen bakoitza urtebetekoa izanik, eta kontratua ez da 4 (LAU) urte baino luzeagoa izango.

PRIMERO.- Adjudicar a la empresa NORTH INCOMING SERVICE, S.L., con CIF B48511034, el SERVICIO DE PROGRAMA DE VISITAS GUIADAS Y TEATRALIZADAS, Lote 1: SERVICIO DE VISITAS GUIADAS, hasta un importe máximo de 7.400€, IVA del 21% incluido, por los siguientes precios unitarios:

- Precio/visita: 76,50€ (SETENTA Y SÉIS euros y CINCUENTA céntimos), más 16,06€ (DIECISÉIS euros y SÉIS céntimos), correspondientes al 21% de IVA.

El plazo de ejecución del contrato será de (DOS) AÑOS, a contar desde la fecha de la firma del contrato.

El contrato será prorrogable por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los 4 (CUATRO) años.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunek kontratazio-zerbitzuko bulegoetara (Foruen kalea, 8) joan beharko dute kontratua administrazioko agirian formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 156.1. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz; hori egiteko, erabaki hau jakinarazten denetik hamabost laneguneko epea izango dute, gehienez ere.

SEGUNDO.- Los adjudicatarios, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberán comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**242.- UDAL ERAIKINETAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ARTATZEKO ZERBITZUA LUZATZEA.**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE SL sozietatearekin (IFK: B4883341-2) sinatutako GETXOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA kontratuaren indarraldia URTEBETEZ luzatuko da (1. luzapena), 2015/07/07tik 2016/07/06ra; hauexek izango dira prezioak eta ehunekoak:

- Udaleko eraikinen instalazio elektrikoen obra berrien ikuskapen eta ontzat emate bakoitzagatik, obra hartu aurretik: 42 euro gehi BEZaren % 21i dagozkion 8,82 euroak.

- Baldintza Teknikoen Pleguko II. eranskineko prezioen arabera, behera egin du. Ehuneko hori zerrendako kontzeptu guztiei aplikatuko zaie: % 39.

**242.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES ELÉCTRICAS EN LOS EDIFICIOS MUNICIPALES.**

A propuesta de la Alcaldía-Presidencia, se acordó:

PRIMERO.- Prorrogar durante UN AÑO (1ª prórroga), desde el 7/7/2015 al 6/7/2016, la vigencia del contrato suscrito con la razón social "ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L.", con C.I.F.: B4883341-2 para el SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES ELÉCTRICAS EN LOS EDIFICIOS MUNICIPALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, por los siguientes precios y porcentajes:

- Por cada inspección y visto bueno de obra nueva de las instalaciones eléctricas en edificios municipales, previa a la recepción de la obra: 42 euros más 8,82 euros correspondiente al 21% de I.V.A.

- Baja sobre los precios del Anexo II del Pliego de Prescripciones Técnicas. Dicho porcentaje se aplicará a todos y cada uno de los conceptos del listado: 39%

- Mantentze-lanen prezioa: 75.400,50 euro urtean gehi BEZaren % 21i dagozkion 15.834,11 euroak.

- Precio de las labores de mantenimiento propiamente dichas: 75.400,50 euros anuales más 15.834,11 euros correspondiente al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Aipatutako luzapenari aurre egiteko beharrezko gastua baimendu eta xedatuko da, hau da, 91.234,61 euro.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario para hacer frente a la citada prórroga, por importe de 91.234,61 euros.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**243.- EKAINAREN 12KO ALKATETZAKO 2636/2015 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: BOSGARRENA KALEKO 6KO ETXEBIZITZA BAKUNA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA-BAIMENA EMAN.**

**243.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE LA ALCALDÍA Nº 2636/2015, DE 12 DE JUNIO, DE CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS DE REFORMA Y AMPLIACIÓN DE LA VIVIENDA UNIFAMILIAR SITA EN C/BOSGARRENA, 6.**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta la Alcaldía-Presidencia, se acordó:

I. Alkatetzaren 2015eko ekainaren 12ko 2636/2015 Dekretuaren jakitun geratzea, Hirigintzako Administrazio Arloak egina. Hauxe da beraren edukia:

I. Quedar enterados del siguiente Decreto de la Alcaldía nº 2636/2015 de fecha 12 de junio de 2015, elaborado en el Área Administrativa de Urbanismo, cuyo contenido es el siguiente:

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-

I.- BEGOÑA ORTUZAR AZPILLAGA andreari obra lizentzia emango zaio, Getxoko Andra Mariko Bostgarrena kaleko 6.ean dagoen familia bateko etxebizitza erreformatzeko eta handitzeko, aurkeztu duen proiektuarekin bat etorriz, arkitekto den Guillermo Avanzini Merino jaunak aurkeztua, EHAEOak 2015eko apirilaren 7an onetsia. Idazkian eskatutakoa zehatz bete behar du.

I.- Conceder a DÑA BEGOÑA ORTUZAR AZPILLAGA, licencia para efectuar obras de reforma y ampliación de la vivienda unifamiliar, sita en la C/Bostgarrena, nº 6, de Sta. Maria de Getxo, de acuerdo con el proyecto presentado por el Arquitecto D. Guillermo Avanzini Merino, visado por el C.O.A.V.N., con fecha 7 de Abril de 2.015, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito.

Baldintza hauek kontuan izan behar dira:

- Handikuntza egingo den zonaren hasierako egoeraren eta erreformatutako egoeraren altxaeren planoak aurkeztu behar dituzte, obrak hasi aurretik.

- Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, ondorengo epeak finkatzen dira.

- Obrak 2 hilabeteko epean hasiko dira, obra-lizentzia jasotzen denetik kontatzen hasita.
- Lanak egiteko 2 hilabeteko epea finkatzen da, gehienez ere.

- Obrak gehienez ere hilabetez izango dira geldirik, sustatzaileari egotzi daitezkeen arrazoiengatik.

Epe horretan ez baditu obrak bukatzen, eta luzamendua eman ez bada, lizentzia ondorio guztietarako iraungi dela joko da.

BIGARRENA: Obrak amaitzean obraren amaierako ziurtagiria eta obraren likidazioa aurkeztu behar dira, teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita. Agiri horietan handikuntza honetako obrak jaso behar dira, baita hasieran baimendutako erreformako obrak ere. Era berean, egindako obren argazkiak aurkeztu beharko dira, ikuspegi guztietatik eginak.

II.- ERKIDEGOAREN PARTAIDETZA HIRIGINTZA JARDUERAK

Deberán de tener en cuenta las siguientes condiciones:

- Previamente al inicio de las obras deberán de presentar planos de alzados del estado inicial y reformado de la zona afectada por la ampliación.

- Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos.

- El plazo de inicio de las obras será de 2 Meses, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.
- Se establece un plazo máximo para la ejecución de los trabajos de 2 Meses.

- El periodo máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de 1 Mes.

Transcurrido este plazo sin finalizarse las obras, y siempre que no se haya otorgado prórroga, se considerará caducada esta licencia a todos los efectos.

SEGUNDO: Al finalizar las obras presentará Certificado Final de Obra y Liquidación de las mismas, firmados por técnico competente y visados por el Colegio Oficial oportuno, en los que se recoja las obras correspondientes a la presente ampliación, así como las de reforma inicialmente concedida, e igualmente, presentará fotografías de las obras realizadas, desde todos los puntos de vista.

II.- PARTICIPACIÓN DE LA COMUNIDAD EN LAS PLUSVALÍAS

SORTUTAKO GAINBALIOETAN: Getxoko Udalari dohainik laga beharko dio 16 metroko handikuntzaren aprobetxamendu haztatuaren % 15eko lurzorua, urbanizazio zametatik libre. Zenbateko horren irismena 2,4 aprobetxamendu unitatekoa da, eraikuntzako erabilera eta tipologia karakteristikoetakoak. Lagapen hori eman beharrean beraren balioa eskudirutan ordainduko da, 4.320 euro zehazki. Zenbateko hori lurzoruaren ondare publikoari atxikiko zaio nolanahi ere. Helburu horretarako, erabaki honen jakinarazpenarekin batera dagokion ordainagiria igorriko zaio, ordainketa modua eta epeak jasota utziz.

III.- Berariaz jasota geratzen da, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 211. 2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lizentziak jabetza-eskubidea salbu utziz eta beste inori kalterik eragin gabe emango direla.

IV.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik obra horietarako 7.082,06 euroko aurrekontua aurkeztu dela eta handikuntzaren 16 metroen aprobetxamendu haztatuaren balioaren % 15aren eskudirutako balioa, urbanizazio zametatik libre, 4.320,00 euroan finkatu dela.

HIRUGARRENA: Dekretu hau Tokiko Gobernu Batzordeari jakinaraztea,

GENERADAS POR LA ACCIÓN URBANÍSTICA: Habrá de ceder, gratuitamente y a favor del Ayuntamiento de Getxo, el suelo correspondiente al 15% del aprovechamiento ponderado correspondiente a los 16 m de ampliación, libre de cargas de urbanización. El alcance de esta cantidad es de 2,4 U.A. de uso y tipología edificatoria característicos, sustituyéndose dicha cesión por el abono en metálico de su valor, fijado en 4.320 €, importe que en todo caso queda adscrito al patrimonio público de suelo. A tal efecto, le será remitido, junto con la notificación de este acuerdo, el correspondiente recibo con expresión de la forma y plazos para el pago.

III.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

IV.- Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto presentado correspondiente a dichas obras asciende a la cantidad de 7.082,06 € y que el valor en metálico del 15% del del aprovechamiento ponderado correspondiente a los 16 m de ampliación, libre de cargas de urbanización ha sido fijado en 4.320,00 €.

TERCERO: Dar cuenta del presente

dagozkion ondorioak izan ditzan.

Decreto a la Junta de Gobierno Local, a los efectos oportunos.

**244.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, NOVIA SALCEDO KALEKO 41EKO ERAIKINEAN EZARRITAKO IGOGAILUARENTZAT EMATEA.**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, erabaki hau hartu da:

I.-
LEHENENGOA: Jon Elordui Otero jaunari, NOVIA SALCEDO 41eko jabe erkidegoaren ordez, Areetako Novia Salcedo 41ean jarritako igogailua lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematea. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 138. erabakiz baimendu ziren, 2014-04-15ean egindako bilkura arruntean.

BIGARRENA: Ebazpen hau JABE-ERKIDEGO eskatzaileari helaraztea, jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

II. Ekonomia Arloak dagozkion eskubideak igorriko ditu. Aurkeztutako likidazioaren zenbatekoa 72053,79.- euro da.

**244.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE INSTALACIÓN DE ASCENSOR EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/NOVIA SALCEDO, 41.**

A propuesta de la Alcaldía-Presidencia, se acordó:

I.-
PRIMERO: Conceder a D. Jon Elordui Otero en representación de la CCPP NOVIA SALCEDO 41, la licencia de primera utilización del ascensor instalado en Novia Salcedo 41, de Las Arenas, obras que fueron autorizadas por Acuerdo nº 138, de La junta de Gobierno Local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el día 15.04.14 y,

SEGUNDO: Dar traslado de la presente resolución a la CCPP solicitante para su conocimiento a los efectos oportunos.

II. Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes. El importe de la liquidación presentada asciende a 72053,79 euros.

**245.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, OLLARRETXE KALEKO 21EKO ERAIKINEAN IGOGAILUA ETA ALDAMIOAK HERRIKO KALEA OKUPATU GABE EZARTZEKO EMATEA.**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENA.-
I.- OLLARETXE KALEA 21EKO JABE-

**245.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA INSTALACIÓN DE ASCENSOR Y ANDAMIO SIN OCUPAR LA VÍA PÚBLICA EN EL INMUEBLE SITO EN C/OLLARRETXE, 21.**

A propuesta de la Alcaldía-Presidencia, se acordó:

PRIMERO.-
I.- Conceder a la CCPP DE

ERKIDEGOARI obra-lizentzia ematea Ollarretxe kaleko 21. zenbakian "igogailua jartzeko", bai eta aldamioak jartzeko ere bide publikoa okupatu gabe. Hori guztia "Abitura Arquitectos S.L.P." enpresak idatzitako eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2012/02/14an ikus-onetsitako proiektuarekin bat etorriz; hala, bere idatzian eskatutakoa zehatz-mehatz bete beharko du, eta baita 2015-05-07ko egindako txosten teknikoan jasotako baldintzak ere, ondoren adierazten direnak.

Egin beharreko obra nagusiak honako hauek dira:

a) Eraikinaren barnealdean igogailu berri bat jartzea, bertako sarrera solairu bakoitzaren eskailera-buruan izanik.

b) Fatxadako itxiturari eragiten dion ezkaratza eta eskailera guztiz berritzea; izan ere, eskailera-atal berria egungo fatxadaren lerrokatzetik ateratzen da, eraikineko kanpoko patioaren eskaileran dagoena.

c) Eskailera pasatzeko 90 eta 88 cm-ko zabalerara estutzen da igogailuaren alboan.

Ondorengo baldintzak beteko dira:

- Ezkaratzeko barnealdera sartzeko ateak 90 cm-ko pasabide librea izango du.
- Bistei eragindako kalteak konpondu beharko dira fatxadaren lerrokatzetik ateratzen den eskailerako tximinia ahalik eta gardenena eginez; hala, obrak hasi aurretik, behin betiko agiri idatzi eta grafikoa (altxaeren planoak) aurkeztu beharko dira, eta bertan inguratzailearen gardentasun hori justifikatuko da.

- Sutea piztuz gero proiektuan jasotako segurtasuneko neurri osagarriak honako hauek dira:

COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DE OLLARRETXE, 21, licencia de obras para "instalación de ascensor" e instalación de andamio sin ocupar vía pública, en el número 21 de la calle Ollarretxe. Todo de acuerdo con el proyecto presentado redactado por "Abitura Arquitectos S.L.P.", visado por el C.O.A.V.N con fecha 14/02/2012,, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito y a las condiciones recogidas en el informe técnico emitido, de fecha 07.05.15 expresadas a continuación.

Las obras principales a ejecutar son:

a) Instalación de un nuevo ascensor en el interior del edificio, teniendo el embarque en el rellano de cada planta.

b) Con reforma total del portal y escalera que afecta al cierre de fachada dado que la nueva tramada de escalera sobresale de la alineación de la fachada actual, situado en la escalera en el patio exterior del edificio.

c) La escalera queda reducido a un ancho de 90 cm, y 88 cm de paso junto al ascenor.

Se cumplirán las siguientes condiciones:

- La puerta de acceso al interior del portal tendrá un paso libre de 90 cm.
- Las afecciones a vistas se deberán de resolver realizando la chimenea de la escalera que sobresale de la alineación de la fachada lo más transparente posible, debiendo de presentar antes de iniciar las obras, documento escrito y grafico (planos de alzados) definitivos donde se justifique dicha transparencia de la envolvente.
- Las medidas complementarias de seguridad en caso de incendios contempladas en el proyecto son las

a) Larrialdiko argiak jartzea solairu bakoitzean eta ebakuatzeko ibilbidea seinaleztatzea.
b) Su-itzalgailuak jartzea.
c) Detektagailu automatikoak etxebizitzen solairu bakoitzean eta trastelekuetan.
d) Seinale- eta alarma-zentrala ezkaratzean.
e) Sirena bat ezkaratzean eta tarteko solairuan.
f) Alarma-sakagailuak txandakako solairuetan.
g) Eskailera-kaxak aireztatzea eta argi naturala ditu.

II. Obra egin bitartean enpresa batek baino gehiagok edo enpresa batek edo langile autonomoek edo zenbait langile autonomok esku hartzen dutenean, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori egiaztatu bezain laster, koordinatzaile bat izendatuko du segurtasun eta osasuneko arloan obra egiten den bitartean.

III. Obrak egin bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, beste inori kalterik ez eragiteko.

IV. Obrak amaitzen direnean, dagokien ikuskapen-bisita eskatu beharko dute, eta horrekin batera honako hauek aurkeztu:
a) Obra-amaierako likidazioa eta ziurtagiria (igogailua eta plataforma bidezko eskailera-igogailua) teknikari eskudunak izenpetuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita.
b) Igogailuaren koloretako argazkiak.
c) Zarata eta dardarei buruzko udal-ordenantzaren 7, 8, 9, 11, 12 eta 13. artikuluetan oinarrituz egindako neurketa akustikoen justifikazioa.

siguientes:
a) Instalación de alumbrado de emergencia en cada planta y señalización del recorrido de evacuación.
b) Colocación de extintores.
c) Detectores automáticos en cada planta de viviendas y trasteros.
d) Central de señalización y alarma en el portal.
e) Una sirena en el portal y planta intermedia.
f) Pulsadores de alarma en plantas alternas.
g) La caja de escalera cuenta con ventilación e iluminación natural.

II. Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

III. Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

IV. Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de:

a) Liquidación (incluido ascensor y plataforma salvaescaleras) y certificado final de obra suscritos por técnico competente y visados por el Colegio Oficial correspondiente.
b) Fotografías, en color del ascensor.
c) Justificación de mediciones acústicas realizadas en base a los Artºs. 7,8,9,11,12 y 13 de la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones.
d) Acreditación de que los vecinos

d) Etxebizitzan oro har zer arrisku dituzten jakiteko bizilagunek egindako prestakuntza-egintzaren egiaztagiria, sutearena bereziki, eta larrialdi-egoera bat dagoenean zer egin.

hayan recibido una acción formativa que les haga conocer los riesgos en el hogar general, y el de incendio en particular, y qué hacer en caso de emergencia.

V. Kontuan hartuta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Eusko Jaurlaritzako ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa:
a) Obrak hilabeteko epean hasiko dira gehienez ere, lizentzia lortzen denetik aurrera.
b) Obra 4 hilabeteko epean egin beharko da, segurtasun eta osasuneko azterketaren arabera.
c) Sustatzaileari dagozkion arrazoiengatik, obrak ezingo du hilabete baino gehiagoz geldirik egon.

V. Teniendo en cuenta lo establecido en el art. 215, de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo:
a) Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después de la obtención de la licencia.
b) El plazo de ejecución de la obra será de 4 meses, de acuerdo con el estudio de seguridad y salud.
c) Por causas achacables al promotor no podrá paralizarse la obra más de 1 mes.

VI. Berariaz jasota geratzen da, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 211. 2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lizentziak jabetza-eskubidea salbu utziz eta beste inori kalterik eragin gabe emango direla.

VI. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

BIGARRENA: Erabaki hau interesdunei jakinaraztea egokiak diren errekurtsoak adieraziz, eta txosten teknikoa Irisgarritasunari buruzko Euskal Kontseiluari igortzea, jakin dezan; kontuan hartuz, udaleko zerbitzu teknikoek, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko desgaituen irisgarritasuna sustatzeari buruzkoaren abenduaren 4ko 20/1997 Legearen nahiz apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren alderdi zehatz batzuk betearaztetik salbuesten dituztela.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes, y remitir el informe técnico, para su conocimiento, al Consejo Vasco sobre Accesibilidad, teniendo en cuenta que los Servicios Técnicos municipales eximen en el mismo del cumplimiento de determinados aspectos de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, de promoción de la accesibilidad de minusválidos del País Vasco, y del Decreto 68/2000, de 11 de abril.

HIRUGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan hartuz obra zibilari dagokion

TERCERO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto

aurkeztutako aurrekontua 108.855,51 € dela.

presentado correspondiente a la obra civil asciende a la cantidad de 108.855,51.

**246.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, AMISTAD KALEKO 3KO ERAIKINEKO EGITURA, ESTALKIA, FATXADA ETA UR-ISURBIDEAK KONPONTZEKO EGINDAKO OBREI ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAN IGARRITAKO AKATSAK ZUZENTZEKO EMATEA.**

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-
I.- Rafael De Pedro Perez-Salado jaunari, AMISTAD 3ko jabe erkidegoaren ordez, obra lizentzia emango zaio, egindako EITan (sarrera-erregistroan 2013ko 37410. zenbakia jaso zuena) aurkitutako akatsak zuzentzeko, aurkeztutako proiektuarekin bat etorriz, arkitektoak diren Ana Gainza Abascal andreak eta Rafael De Pedro jaunak idatzia, EHAEOak 2015-03-18an onetsia. Hori guztia Alkatetzaren otsailaren 13ko 729/2014 Dekretuan dagoen betearazpen agindua betez. Hauek dira:

- Lehenengo forjatua eskoratzea.
- Sendotze puntualak edota ordezkapenak, zona bakoitzeko egoeraren arabera.
- Egiturazko euskarria osorik ordezkatzea.
- Euri-uren zorrotenak birbideratzea.
- Estaldura materialaren elementu guztiak ordezkatzea.
- Balkoietako lauzak ordezkatzea, eta suhiltzaileek kendutako erlaitza birjartzea.

